

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 110/2020 Foru Agindua, martxoaren 3koa. Aldatzea ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitzen 189 erredua, balore, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio aitortpenarena, bai eta eredu horren barruko orrien ordeztan ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere

2019ko informazio aitortpenen aldaketak burutu beharrek premiazko egiten du balore, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio aitortpenaren 189 erredua onetsi zuen ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua aldatzea, zergapekoari bere balore zorroari buruz laguntzeko sistema berriak behar bezala ibiltzeko behar den informazioa egokitzeko.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitzen 189 erredua, balore, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio aitortpenarena, bai eta eredu horren barruko orrien ordeztan ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Ondoko aldaketa hauek egiten dira ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen 189 erreduko euskarriaren diseinu fisiko eta logikoetan, zeinak ekainaren 1eko 318/2009 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen baitira:

Bat. Aldatzen da "MERKATU GAKOA" eremua, 80 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 189 erreduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
80	Alfabetikoa	MERKATU GAKOA Ondoko gako hauetako bat jarriko da: Gakoa Azalpena
		A Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofiziala.
		B Atzerriko baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala (Europar Batasuna)
		C Bestelako merkatu nazionalak.
		D Atzerriko bestelako merkatuak.
		E Atzerriko baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala (EBtik kanpo).

Bi. Aldatzen da “BALORE KOPURUA” eremua, 96-107 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 189 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKIPZIOA
96-107	Numerikoa	<p>BALORE KOPURUA</p> <p>Honako hauen guztien kopurua jarri behar da: entitate juridikoen kapitaleko edo funts berekietako partaidetza edo akzioak, merkatu antolatuetan negoziatuak; kapital berekiak hirugarrenei lagatzearen adierazgarri diren baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak, edo inbertsio kolektiboko erakunde baten kapital sozialeko edo ondare funtseko partaidetza edo akzioak. BALORE KODEA eremuan, 81 posizioan, A, B edo C jarri bada bakarrik beteko da eremu hau. Bi eremutan banatuta dago:</p> <p>96-105 Baloreen zati osoa.</p> <p>106-107 Baloreen zati hamartarra (ez badauka, zeroz beteko da).</p> <p>Halaber, aitortutako balore bat baino gehiago badaude, haietako bakoitzean, partaidetza ehuneko jakin bat daukan balore guztien kopurua jarri behar da.</p>

Hiru. Gehitzen da “TITULARTASUN GAKOA” eremu berria, 129 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 189 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKIPZIOA
129	Alfabetikoa	<p>TITULARTASUN GAKOA</p> <p>Ondoko gako hauetako bat jarriko da:</p> <p>T Titularra jabe osoa.</p> <p>N Jabe soila.</p>

Lau. “ZURIUNEAK” eremua, 129–389 posizioak dituen 189 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan) 130-389 posizioetara aldatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta aplikagarria izango zaie, lehen aldiz, 2019ko aitortuaren.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 3a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA